



197. zenbakia

· MAIATZA 2020 ·

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Edurne, Laia, Ainara, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu, Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzenoi, etab... barkatu aipatu ez zaituztegunoi.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareko taldekideez gain, Txurdan, Lurra eta Patxi Irurtzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.600 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Oskotz. Egilea, Isabel Azpiroz.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira ekainaren 5ean bidalia

Olerkia



The Beatles taldearen balada 'Let it be' abesti ezaguna konfinamendu garaian euskarara ekarria

(Joxerra Gartziak itzulia eta moldatua)

“

EZ ETSI!

Noraezean baldin banago,
ama goxo datorkit,
hitz zuhurrez mintzo:
ez etsi!

Ta ilun-aldietan
Bera alboan daukat beti,
hitz zuhurrez mintzo:
ez etsi!

Ez etsi, ez etsi, ez
etsi, ez etsi!
Hitz zuhurrez
mintzo: ez etsi!

Ta lur jota daudenak ados
jartzen badira aurki,
bada irtenbide bat,
ez etsi!

Zail dirudien arren
lortu liteke, ta sinetsi:
bada irtenbide bat,
ez etsi!

Ez etsi, ez etsi, ez
etsi, ez etsi!
Bada irtenbide bat, ez etsi!
Ez etsi, ez etsi, ez
etsi, ez etsi!
Hitz zuhurrez
marmar: ez etsi!

Gau hodeitsuan ere
argi bat nigan da pizturik
egun-argiarte
ez etsi!

Musikak esnatu nau, eta
ama goxo datorkit
hitz zuhurrez mintzo:
ez etsi!

Ez etsi, ez etsi, ez
etsi, ez etsi!
Bada irtenbide bat,
ez etsi! (bis)

Ez etsi, ez etsi, ez
etsi, ez etsi!
Hitz zuhurrez
marmar: ez etsi!

”



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Goizargi Santxo Gaskue, Eritze

“Zaila da jendea gure herrietara etortzea, traba besterik ez baitago”

Iruñean jaio bazen ere, 7 urte zituenetik bizi da Eritzen Goizargi Santxo Gaskue. Aitarena utzi eta amaren sorterrira etorri ziren orduan. Aitak Pulunpe banatzen zuen Eguaratsen eta Eritzen, eta bera falta denetik hartu dio lekukoa Goizargik. Aita euskararen eta herrigintzaren alde edozer egiteko prest zegoen beti, eta, orain, bera ere ahal duena egiten saiatzen da. Esaten duenez, dena den, ardura horrek ez dio lan handirik ematen, denbora gutxian gustura egiten duen lana baita berarentzat. Familiak laguntzen dio, eta, aldi berean, etheen izenak alabarekin errepasatzeko aukera ematen dio.

• GOIZARGI, ZU IRAKASLEA ZARA OIHANZABALEN, JAUNTSARATSEN, ZER MODUZ DARAMAZUE ESKOLAKO JARDUERA?

Gure helburu nagusia umeak eta familiak atenditzea da, aurrez aurre ez bada ere; hurbil gaudela sentiaraztea, haien behar eta interesak ase ahal izatea. Egoera honetan familiekiko enpatia eta lotura handitu delakoan nago, umeengana gehiago hurbildu garelakoan. Gehiago ez bada, beste ikuspegi batetik bai, eta ezkutuko hainbat alderdi ezagutzen ari gara. Aro digitalak eskaintzen dizkigun berrikuntzak eta trebakuntzak ezagutzen eta egunerokoan egoki direnak txertatzeko aukera aztertzen ari gara.

Bestalde, familien baldintzak eta egoerak arras ezberdinak dira, eta horietara egokitzen saiatzen ari gara. Telelana ez da erraza, umeen beharrak bete gabe daudenean, gainera; sozializazioa eta mugimendua, esate baterako; arrakala digitala ere badago. Baina egoeraren larritasuna ikusita, ezin gara kexatu. Soldata badugu, etxeko babesean ari gara lanean; eta teknologia aldetik, izugarri ikasten ari gara.

• BA AL DAKIZUE HURRENGO IKASTURTERA ARTE HORRELA JARRAITUKO DUZUEN EDO LEHENAGO ZABALDUKO OTE DITUZTEN ESKOLAK?

Berririk ez dugu. Azken egunetan publiko egin direnak besterik ez.

Auskalo.

Alde batetik, polita litzateke, sinbolikoki bada ere, taldea berriz ere elkartzea eta ikasturtea “agurtzea”. Bestalde, ordea, batez ere txikiendako, eskolaren erritmo eta ordutegietara berriro ohitu beharra egokitzapen berri bat izanen litzateke, egun gutxi batzuetarako, gainera.

• UME KOPURUAK BEHERA EGIN DU, KEZKATZEN AL ZAITUZTE?

Dexente jaisten ari da, bai. 12 edo 13 ume osatutako taldeak ziren orain urte batzuk, eta azken urteetan 6 edo 7 ume besterik ez da sartzen. Kezka baino gehiago, ezegonkortasuna sortzen du, bai taldeak sortzerakoan, baita lan egiteko metodologian edo proiektuak definitzean ere.

• BIZILAGUN BERRIAK ETORRI DIRA ERITZERA, UMEREN BAT ERE JAIO DA AZKEN URTEAN. ETORKIZUNIK BA AL DUTE ESKUALDEKO HERRI TXIKIEK ERE?

Albiste hoberik ez da horrelako herri txikietan. Tamalez, ordea, etorkizuna ez da itxaropentsua. Hutsik dauden etxeak ez dira saltzen, urbanizatzeko lurra ere ez..., ez dago herrigintza proiekturik pertsona gazteak hona erakarri ahal izateko, eta, beraz, zaila da jendea gure herrietara etortzea, horretarako traba besterik ez baitago.



▲ Goizargik alabarekin banatzen du Pulunpe



Ostalaritza, alarma egoeran?

Ostatuak zabalik, bi hilabete itxita egon ondoren

Bi hilabetez itxita izan dira eskualdeko tabernak eta ostatuak; baina, azkenik, maiatzaren bukaera eta ekainaren hasiera bitartean zabalduz joan dira. Denbora asko geldirik, diru-sarrerarik gabe, eta aste santua tartean. Baina gogoz eta eguraldi txarrari aurpegi ona jartzeko asmoz agertu zaizkigu. Gainera, uste baino lehen izan dute zabaltzeko aukera. Dena den, erdira mugatu beharko dute haien edukiera, segurtasun distantzia bete ahal izateko. Horregatik, gehienek erreserba bidez emanen dute bazkaltzen.

LARRAINTZARKO OSTATUA, ULTZAMA:

Teresa Leggett

“Langile bat izan dugu enplegu erregulazio espedientean (ERTEn) baina ireki bezain pronto alta eman genuen Gizarte Segurantzari. Izan ere, lana guztion artean banatzea da hoberena. Gobernuak autonomoendako laguntzak jarri ditu eskura, baina 600 euro besterik ez dira eta ordaindu beharreko kuota 300ekoa da, ez da asko gelditzen gainontzeko gastuei aurre egiteko. Guk ahal bezain pronto ireki genuen, itxirik edo zabalik gastu berberak baititugu, eta hobe da diru pixka bat sartzea ezer ez sartu baino”.

“Covid-19aren inguruko ikastaroak egin ditugu ostatuan aritzen garen guztiok. Jendea kezkatuta

dago baina lokala prestatuta dagoela ikustean, lasai etortzen dira. Aholkuak eta desinfektatzeko xaboia jarri dugu guztion eskura, baita maskarak ere; Janaria jasotzeko tokia bereizi dugu eta, noski, mahaien arteko distantzia errespetatzen da. Bigarren fasean sartzean zailagoa izanen da, bi eremu izanen baititugu (kanpoko eta barrukoa) eta biak kontrolatu eta etengabe garbitu beharko ditugu”.

“Egoera honen ondorioz bailaran ditugun baliabide guztiez hausnartzea gustatuko litzaiguke. Hemen bizi eta kontsumitu dugu aste hauetan eta hori mantentzen saiatu beharko ginateke, elkarren artean babestuz”.



LANZKO OSTATUA, LANTZ:

Pello Etxeberria

“Ekainaren 8an zabalduko dugu eta lan egiteko modua guztiz aldatuko dugu. Tokia mugatuagoa izanen dugunez, erreserba bidez bakarrik emanen ditugu bazkariak”.

“Herri honetan oso gertutik ikusi dugu gaitza, tamalez bi herritar joan baitzitzaizkigun. Horrek, gainera, izua zabaldu du eta nik uste dut jendea kostako zaiola 'normaltasunera' itzultzea”.

“Langilea ERTEn izan dugu, eta nik mutuaren bidez kobratu dut kopuru txiki bat. Ihoteek salbatu gintuzten, gutxiatik ospatu ahal izan genituen. Dena den, Udala ere oso ongi tratatu gaitu, ez baitugu alokairua ordaindu behar izan. Horrela, aurrera egiteko aukera izan dugu, baina beldur naiz ez baitakit zabaltzerakoan nola ibiliko garen”.





LATASAKO BILTEGIA, IMOTZ:

Sol Flores

"Denbora gutxi daramagu, eta alde horretatik, kolpea izan da, bai. Baina, eutsi egin ahal izan diogu. Zorionez, zabaldu genuenean lan asko izan genuen, oso harrera ona, eta horrek lagundu egin digu. Gainera, Udalak ahal duen guztian lagundu digu, alokairuaren ordaintzea gelditu du itxita egon garen bitartean"

"Ezjakintasuna zaila izan da. Baina, aldi berean, gauza onak ere izan ditu. Lokala eta protokoloak berrikusteko aprobetxatu dugu. Lan handia izan genuen ireki

aurretik eta azkar-azkar egin genituen gauza horiek lasaigo berrikusteko denbora hartu dugu, eta hainbat gauza birplanteatzeko. Gainera, espero genuena baino lehenago ireki ahal izan dugu, irailera arte itxita egon behar genuen beldur ginen".

"Ekainaren 3an irekiko dugu eta erreserba bidez lan egiten ahaleginduko gara. Aurretik deitzea gomendatzen dugu, bai, toki gutxiagorekin mahaia errazago bete daitezkeelako".



OLAGUEKO LA TXIKITA TABERNA, ANUE:

Agustin Martinez



"Maiatzaren 11n zabaldu genuen terraza. Baina terrazarekin bakarrik... eguraldiaren menpe zaude, eta ez dugu lan gehiegirik izan. Ea orain eguraldia hobera doala... asko nabaritzen da hori. Erreserben bidez lan egiten dugu bazkariak eskaintzeko".

"Langileak ERTEn izan dira, bai. Aldi berean Udalak alokairuaren bi hilabete hauek barkatu dizkigu".

JAUNTSARASKO APEZTEGIBERRIKO DENDA, BASABURUA:

Virginia Gerendiain eta Irentxu Martinena

Virginia: "Tabernara begiratzeak tristura ematen digu. Beti pentsatzen ari gara ea noiz itzuliko garen lehengo egoerara. Baina alde positiboak ere badaude, noski: inguruko jendea, erosketak lruñean egin ordez, hona hurbiltzen da gehiago. Normalean, lehen, ez ziren erosketa handiak egiten, ahaztutako gauzak edo momentuan behar zuten zerbait

erosten zuten. Alde horretatik pozik gaude, asko nabaritzen da eta".

Bigarren fasean, maiatzaren 25ean ireki dute. Irentxu: "Sukaldean ia ia zerotik berriro hastea bezala izanen da, zenbat janari erosi behar dugu? Ez baitakigu zenbat jende etorriko den... egoera berrira ohitu beharko gara".





Errenta aitorpena euskaraz egitera deitu ditu herritarrak Euskara Zerbitzuak

Errenta aitorpena egiteko kanpaina hemen dugu berriz, eta Euskara Zerbitzutik euskaraz betetzeko dei egin diete herritarrei.

Felix Altzelai euskara teknikariak azaldu zigun banketxe guztiek ez dutela errenta aitorpena euskaraz betetzeko aukerarik ematen, baina internetez edo telefonoz aukera hori badago. Nola egin daitekeen? Autolikidazio proposamena onartzerakoan, izan telefonoz nahiz izan internetez, euskaraz egitea eska daiteke. Horrela eginez gero, ogasuneko agiri guztiak euskaraz bidaliko dizkigute aurrerantzean.

Errenta aitorpena mekanizatua egin behar bada, berriz, hitzordua hartzerakoan eskatu behar da harremanak euskaraz nahi ditugula. Eta internet bidez egiten dutenek, errenta programaren euskarazko bertsioa jaitsi eta hizkuntzen atalean euskara aukeratu behar dute.

UEMA Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak 2018ko kanpainaren datuak zabaldu ditu, eta horren arabera, Basaburuan herritarren %3,16 soilik izan ziren errenta aitorpena euskaraz egin zutenak. Datuak hobetzea ez da hain zaila, beraz, hartu dezagun erronka moduan eta egin dezagun errenta aitorpena euskaraz!



CAMPING - KANPINA

IZARPE

ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA

ESKATU ERAMATEKO JANARIA

Oilasko errea patatekin 13,90€

Paella errazioak 9,5 €

Pizzak, Hanburgesak...



eta.... Ostegunero
8ak aldera Pintxo Pote



Eguneko Menua
Asteburuko Menu berezia
Pizzak, Hanburgesak
Plater konbinatuak
Paellak....
eta askoz gehiago



*Euskara
errazeko
artikulua*

2019ko ERRENTA AITORTZEKO KANPAINA

Internet bidez, telefonoz, banketxean
edo aholkularitzan. Aurten ere egin

**ERRENTA AITORPENA
euskaraz!**

**ERRENTA
AITORPENA
EUSKARAZ**



UEMAk errenta aitortpena euskaraz egiteko dei egin die herritarrei ▲

ZE HAR ESTILOA

Zehar estiloa besteek (edo guk)
esan dutena, galdetu dutena edo
agindu dutena berriz esatean
erabiltzen dugu :

- Estilo zuzena:

- Felix Altzelai: Banketxe guztiek
ez dute errenta aitortpena
euskaraz betetzeko aukerarik
ematen.

- Zehar-estiloa: **(e)la**

Felix Altzelai euskara
teknikariak azaldu zigun

banketxe guztiek ez dut**ela**
errenta aitortpena euskaraz
betetzeko aukerarik ematen.

Ezezkoetan ordea, **(e)nik**
erabiltzen dugu:

Aitorrek esan du bazkaltzera
etorriko dela / Aitorrek ez du
esan bazkaltzera etorriko **denik**.

- Galdera zuzena:

Kazetaria: Aurten Basaburuko
eguna ospatuko da?

- Zehar estiloan: **(ea).... -(e)n**

Kazetariak (ea) aurten
Basaburuko eguna ospatuko
den galdetu du.

- Agindu zuzena:

- Aita: Garbitu hortzak!

- Zehar-estiloan: **t(z)eko**

- Aitak hortzak garbit**itzeko** esan
dio alabari.



Covid-19a duen kasu aktiborik ez, Ultzama aldean

Guztira Covid-19a izan duten 18 pertsona izan dira Ultzama aldean, martxotik hona. Tamalez, hiru pertsona hil dira, hirurak martxoan. Gainontzeko guztiek sendagiria jaso dute, honezkero. Eta, maiatzaren bukaeran ez dago kasu aktiborik gurean.

Apiriletik hona, PCR testak egin dituzte eskualdean, sintomekin berrogeialdian izan diren 60 pertsonari. Horrela, 10etik 18ra igo ziren kasu positiboak, baina esan bezala sendagiria jaso dute guztiok.

Izan ere, egoera lasaitu da Nafarroan. Baina, gogoratu, txertoa lortzen den arte, 'distantzia soziala' eta neurri higienikoak mantentzea gomendagarria dela, adituek adierazi dutenez.

Lanzko 79 eta 90 urteko bi anaia izan ziren Ultzama aldeko lehen hildakoak. Martxoaren bukaeran zendu ziren biak, eta hirugarren anaia batek, koronabirusak kutsatuta egoera zailean egon bazen ere, hobera egin zuen eta bizirik ateratzea lortu zuen. Eskualdeko hirugarren hildakoa ere martxoaren amaieran zendu zen: Alkozko (Ultzama) 78 urteko gizonezkoa.



Nafarroako ospitalea

Nafarroa eta Espainia ostegunean bilduko dira hitzarmen ekonomikoaz hitz egiteko

Eta beste gai batzuk ere jorratuko dituzte (Euskalerrria irratia, 2020-5-11)



Joxe: Ez omen ditek euskara gorrotatzen!

Mattin: Maite gaiztuztela? Baita ere! Hau bai berri-berria dela!"

Basaburuko salmenta zuzeneko produktuen zerrenda osatu dute

Inguruko ekoizleek Basaburuko produktuen zerrenda osatu dute. Hau da, guztion kontaktuak katalogo batean bildu nahi dituzte. Helburu nagusia haien produktuen salmenta zuzena ahalbidetzea da. Horretarako, Cederna Garalurren eta Basaburuko Udalaren laguntza izan dute. Katalogoa irekia da, eta, beraz, zerrendan agertzeko interesa duen ekoizleak haiekin kontaktuan jartzeko aukera badu.

Covid-19aren krisiaren ondorioz, alarma egoera ezarri zenetik, ekoizle askok arazoak izan dituzte haien produktuak saltzeko. Horregatik, eta tokiko lehen sektorea bultzatzeko, kontaktu zerrenda hori osatzen ari dira Euskal Herriko hainbat tokitan. Baita Basaburuan ere.

Zerrendan agertu nahi izanez gero, hurrengo telefonora deitu behar da: 609 473 594 (Riki). Bertako ekoizle eta produktu guztiak sartu nahi dituzte zerrendan: okela,

esnekiak, barazkiak ... Bestalde, produktuak eskuratzeko, zerrendan agertzen diren kontaktuetara deitu behar da.



Basaburuko ekoizleen katalogoa ▲

‘Ultzaman Bizi Ultzaman Kontsumitu’ kanpaina jarri du abian Udalak



▲ Maiatzean abiatu du ‘Ultzaman Bizi Ultzaman Kontsumitu’ kanpaina Udalak

Eskualdean kontsumitzera bultzatu nahi ditu herritarrek Ultzamako Udalak, eta bide batez, koronabirusak eragindako konfinamendu garaian bertako ekoizle eta komertzioek egin duten lana eskertu. Bertan kontsumitzearen garrantziaz aritu zitzaigun Ekaitz Astiz zinegotzia Esan Erran irratian, eta horregatik erabaki dute ekoizle, komertzio eta establezimenduentzat zailak diren garaiotan kanpaina hau martxan jartzea.

Zertan datzan kanpainak? Bada, Udalak bere eskura dituen komunikazio tresnak jarri ditu bertako ekoizle eta komertzioak bultzatzeko: Facebooken kanpainaren orrialdea jarri dute martxan, eta Twitterren eta Instagramen ere @ultzamanbizi kontua ireki dute ekimenerako. Deseskaladan enpresa, ekoizle eta profesionalak aurrera eramango dituzten ekimenen bozgorailu izatea du helburu proiektuak, ohiko jarduerara bueltatzen doazen heinean pauso horien berri emateko.

Kanpainaren lehen fasea da oraingoa, baina aurrerago diru-laguntza lerro bat martxan jartzea du asmo Ultzamako Udalak, koronabirusaren krisiak gehien kaltetu dituen establezimenduetan kontsumoa suspertze aldera. Laster emanen dituzte diru-laguntza horien funtzionamenduari eta aurreikusten dituzten zenbateko ekonomikoei buruzko xehetasunak.



iritzia



Andoni Egaña,
Berria

Ikasgaiak

2020ko maiatzak 22

Birusaren ingurukoez gain, beste berriak ez dela sortzen dirudi. Halaxe da akaso. Baina egoera berezi honetan ohikoak ez diren ahotsei leku ematen asmatu duenik izan da, eta jakin-min handiz irakurtzen ditut, esaterako, berripaper honek Termometroa sailean biltzen dituen pertsonen esanak.

Ez zitzaidan inoiz burutik pasatu ere egin baserritarrek, ardien ile-moztailetza egin ondoren, etxean dituzten artile zakukadak eramateagatik ordaindu egin behar izaten dutenik. Norbaitek hortik aberasten ari direla igual pentsatuko du! Birusa tarteko eta Josebe Blancori esker ikasi dut. Publikoa goretsi arren, ez zitzaidan inoiz bururatu oinezko naizela botoidun semaforo bat erabiltzean komeni dela datorren ibilgailua pribatua edo zerbitzu publikoaren baitakoa den begiratzea. Birusak bide emanda irakatsi dit hori Urko Rodriguez autobus gidariak. Ez nuen sumatzen Erdialdeko Amerikatik gurera etorritako askori, bere ama hizkuntzan aritzeko ohitura dela eta, gaztelania behar bezala menperatzea kosta egiten zaienik. Euskalduna izanik jakin behar nuen, baina birusaldiak eta X.X. etxeko zaintzaileak etorri behar izan dute nire irakasle. Kontu potoloren bat eta txiki asko ikasteko aukera izan dugu. Ea ikasgaiak baliatzen ditugun...

Ipar martxako gune bat zabalduko dute Imotzen

Xenden Egunean inauguratu nahi dute, abuztuan, osasun egoerak aukera ematen baldin badu. Gasteizko enpresa bat ari da gunea abian jartzeko lanetan. Araban, 17 gune dira honezkero; 8, Bizkaian, eta 5, Gipuzkoan; sare bat osatu dute eta Biltegiko guneako promozioa sare horrek egingen du. Nafarroako bigarren gunea izanen da, beste bat baitago Zangozan.

Imotzen lau ibilbide ari dira prestatzen, hainbat herri lotuko dituztenak. Bi berde, gorri bat eta beltz bat. Koloreek zailtasuna adierazten dute: berdeak errazena dira eta beltzak zailenak. Imozko bi berdeek naturgunea hartuko dute oinarri gisa; bata, Lekunberrirantz doan, bost kilometro izanen ditu; eta, besteak, sei kilometro, Irurtzunerantz. Gorriak 11 kilometro izanen ditu, Latasatik Etxalekuraino; eta, beltzak, zailenak, ia 15 kilometro, zirkularra izanen da, Latasatik, Etxalekura eta handik Zarrantzainokoa, mendiz.

Ipar martxa 90eko hamarkadan Finlandian sortutako kirola da. Ipar eskia egiten dute bertan, eta, udan, elurrik ez dagoenean entrenatzeko, ipar martxa sortu zuten. Bi makilarekin eta teknika berezi baten bidez oinez joatean datza. Muskulu gehiago lantzen dira oinez besterik gabe ibiltzean baino, eta, aldi berean, belaunak eta zenbait artikulazio hobeto babesten dira teknika honen bidez. Horregatik, adin guztietarako gomendagarria da.

Akats baten zuzenketa

194. Pulunpen Eneko Tuduri ultzamarrak guretako idatzitako erreportajea argitaratu genuen. Arte Historian graduatua eta Estatu Batuetan tesia egiten ari den ikertzailea da Eneko Tuduri.

Bertan akatsa egin genuen. "Nafarroako Erdi Aroko horma margo bakarrak dira" esaldia nabarmendu genuen aipuan, eta informazio hori ez da zuzena. Hona hemen jarri behar genuen esaldia: "Nafarroako Erdi Aroko horma margo bakarrak dira zerupean daudenak". Azkeneko bi hitz horiek falta ziren. Izan ere, Eneko Tudurik esan digun bezala, "Nafarroako museoa Erdi Aroko margo beteta dago; eta Nafarroa osoan erdi aroko 40-50 horma margo egon daitezke gaur egun".

arteak hain zuzen.

Zati bat, desagertua

Zoritzarrez, 1978 eta 2015. urteen artean margoen zati bat desagertu da. Alegia lehen lerroko Ama Birjina tronuan, San Pedro eta hauen eskueko hiru togadun figura. Segur aski norbaitek sekzio hau moztu eta lapurtu du 1978-2015 tartean.

Oso kaltebaak egon arren, San Martin de Auzako horma margoak

“

Nafarroako Erdi Aroko horma margo bakarrak dira, eta desagertzeko kinka larrian jarraitzen dute

”

Osaileko Pulunpen argitaratu genuen
Eneko Tudurik idatzitako Auzako margoen erreportajea

AEKn aurrematrikulatzeko epea zabalik

Abian da honezkero 2020-2021 ikasturterako AEKren aurrematrikula kanpaina. Internet bidez eman dezakete izena interesa dutenek aek.eus/aurrematrikula webgunean sartuta. Maiatzaren 11n zabaldu zuten kanpaina eta eta uztailaren 8a arte luzatuko da.

%5eko deskontua izanen dute izena orain ematen dutenek, eta baita ordainketa modu malguagoan egiteko aukera ere. Aurrematrikula egiten dutenek, gainera, lehentasuna izaten dute plazei dagokionez, beraz, euskara ikasten hastea edo horretan jarraitzea pentsatzen ari direnek izena emateko momentu ona dute orain.

Beatriz Buldain Larraungo eta Ultzama aldeko AEKko arduraduna elkarrizketatu genuen Esan Erran irratian, eta koronabirusaren krisiak aurtengo ikasturtean nola eragin dien eta etxetik nola egin duten lan azaldu zigun bertan. Klaseak telematikoki emanez egin dute aurrera azken hilabeteetan: "Egoera ez da erraza izan, baina ikaskuntza prozesuarekin aurrera egin ahal izan dugu behintzat", adierazi zuen.

Hurrengo ikasturtera begirako eskaintzari dagokionez, ohiko ikastaroak egonen dira: aurrez aurrekoak, autoikaskuntza, online ikasketak eta jardunbikoak (gure eskualdean horrelakorik ez

da egon orain arte, dena den). Koronabirusaren egoerak nola eboluzionatzen duen ikusita, ikasturte berrian ere telematikoki eta distantziatik lan egiteko aukera ez dute baztertzen, baina printzipioz, ohiko kurtsoen eskaintza normalki egitea dute asmo. Gure eskualdean, azken urteetan bezala, Larraintzarren, Eritzegoitin.



Zurezko Tallak

—ESKUZ EGINDAKOAK—

Tailuzko eskulan desberdinak / *Todo tipo de trabajos en talla*

Etxeen izenak / *Nombres de Casa*

Eguzkiloak / *Cardos de Brujas*

Ongietorriak / *Bienvenidas*

Eskilekuak / *Percheros*

Armarriak / *Escudos*

Ikastaroak / *Cursos*

—MIKEL OKIÑENA [ETXALEKU]—

618 3520 14 [WHATSAPP] - geroarte@ymail.com

Magdalena Pudina

Hilabete honetan, berriro, ez dugu aukerarik izan herritarren etxeren batean sartu eta haiekin sukaldatzeko. Oraingoan, dastatzerik ez dugu izan, baina Eltsoko Itziar Mariezkurrena Nuinek postre bat prestatzeko errezeta bidali digu: magdalena pudinarena. Magdalenak lehortzen zaizkigunean, hauek aprobetxatzeko modu bat da.

OSAGIAK

Magdalenak: 4-5

Arrautzak: 4

Azukrea: 5 goilarakada

Esnea: 2 baso

Karameloa

• PAUSUAK:

1) Esnea pixkanaka berotu.

2) Arrautzak eta azukrea irabiatu. Gero, esnearekin nahasi.

3) Magdalenak eskuarekin zatitu eta, hauek ere, esnearekin nahasi.

4) Karameloa egin: azukrea suan berotuz.

5) Laberako katilu batean karameloa jarri aurreneko gauza eta gero aurretik nahastutako guztia bota. Labean 20 minutuz egin behar da, 180 gradutan.

Labetik atera ondoren hozten utzi beharko dugu. Orduan, bai, jateko prest! On egin!

▼ Magdalena pudina



▲ Itziar Mariezkurrena



Don Julian, Aritzuko artzai onari, ilobak eskerronez.

Inoiz ez bezala, 1963ko San Pedro egunean, Aritzu ezin ederrago apaindurik. Ez zen gutxiagorako, **Beltraneko** Julian, Francisco Zilbeti eta Julia Erbitiren bosgarren semeak, bere meza berria eman baitzuen.

Gure aitatxi eta amaxirendako izugarritzko zoriona eta harrotasun puntua ere izanen zen, hori dut ustea.

Ondoren, laster gainera, Erripa-Gendulain eta Gaskueko apez izendatu zutenean, Franciscok eta Juliak pentsatuko zuten betiko beren hurbilean izanen zutela. Baina, erabat oker zebiltzan.

1968an misioetara joateko erabakia hartu eta itsas bertzaldera abiatu zen, Venezuelara, La Fria hirira hain zuzen, bertan 17 urte eginen zituelarik. Bere familiarentzat

egonaldi luzeegia eta berarentzat ere bai agian, iloben sortze eta amaren heriotzaz urrundik jabetu behar izan baitzuen.

Itzulera, Gasteizen urte bateko eguneratze ikastaroa egin, aldi berean Aritzu, Zandio eta Otsakaingo parrokien kargu egin zen, baina berehala Erronkarira igorri zuten. Lehenik Izabara (1986) gero Uztarrozera (1988) eta ondoren Urtzainkira (1998) Erronkariko eta Saraitzuko artzapez ere izan zen (1990-2000) eta Pirinioko Eskualdekoa (2000-2002) Erronkarin etxekotzat hartu zuten eta bera ere hala sentitu zen. Euskaldun nortasunak, herritar izaerak, erraztu zuen dena. Bai, bere eliztarrek maite izan zuten. Hala ere Aritzurekin ez zuen inoiz harremana galdu: ia igandero-igandero, azken meza eman ondoren, etxera itzultzen zen, bere haurtzaro eta gaztaroko herrira eta sortetxeko nekazari etxera.

Erronkaritik Tafallara (2002-2006) egin zuen salto eta hemen lan-kargak herritik eta familiatik urrundu zuen momentuz. Eta, okerrago dena, bere bihotzak lehen abisua pasatu zion, baina ez gintuen aztoratu nahi izan.

Bere azken lanpostua Arren izan zuen eta bertan 2015era artio egon zen eta urrezko eztaiak bertan ospatu zituen.

2015ean erretiratu eta Seminarioan, apez zaharrendako egoitzan, bizi izan da geroztik, Aritzura maiz-maiz etorritik, eta etxeko baratze, ardi eta Anueko mendiaz gozatzen. Hori bai, dialisia egitea egokitzen ez zitzaionean gizajoari.

Beltraneko osaba Eusebio eta Julian bi senideak bereizteko, bati ardi artzaia deitzen nion eta bertzeari arima artzaia.

San Agustinek dioen bezala, Julian arima artzaia izan zen, Jainkoagandik hartu sua bertzeengana pasatuz predikuen eta sakramentuen bidez; baina batez argia eta berotasuna, bere bizitzaren lekukotasunaren bitartez.

Nik ez dezaket bertzerik erran, gure osabaren bidez ezagutu nuen Eliza nahi nukeela: sotila, zintzoa eta hurbilekoa. Arrandiarik gabea, xumea eta tradizioa gordeaz, moda eta momentuko nahaikerietatik urrun.

Olaguean, zure iloba Maria Zilbeti

Aritzu, meza berrirako apaindua ▼



▲ Don Julian, meza berrikoan



Jose Luis Elkano

“Maisu falangistengandik engainatua sentitzen nintzelako z hasi nintzen Eusko Bazterraren militarizatzen”

Historia liburuetatik ikastera ohituta gauden garaiotan, ahaztu egiten dugu maiz gugandik hurbil ditugula liburuetan azaltzen ez diren baina historiako pasarteak gertutik bizi izan dituzten pertsonak. Horietako bat da Ostizko (Odieta) Jose Luis Elkano ‘Kokolo’: 16-17 urterekin hasi zuen bere militantzia Eusko Bazterraren, frankismoaren aurka eta euskal kulturaren alde egiteko.

Eusko Bazterraren hastapenak

“Ostizen taberna eta jatetxea zuten gurasoek, eta handik inguru hauetako jende asko pasatzen zen: Ultzamakoak, Basaburukoak, Imozkoak, Baztan aldekoak... egunero entzuten nuen nik euskara. Eta, aldi berean, eskolan irakasle falangista nuen eta apaiza ere ildo berekoa zen”, gogoratzen du Elkanok. Gurasoenean bizi zuen euskal giroak eta Iruñeko Eskolapioetan kontatzen ziotenak ez zuten bat egiten, eta horregatik sentitzen zuen irakaslea eta apaiza beraiek engainatzen ari zirela. Horrela hasi zen berak bezalatsu pentsatzen zutenekin elkartzeko eta mugitzen.

1966an Amigos del Pais elkarteak sortu zuten Iruñean EAJren laguntzarekin. “Garai hartan etengabe zeuden Iruñean desfile militarrek, eta ikurrina batekin harrapatuz gero urteetako kartzela zigorra izan zenuen”. Urtebete beranduago, 1967an, elkarte hartatik beste bat jaio zen: Eusko Bazterra.

Iruñeko katedraletik hurbil zuen egoitza elkarte berriak, eta segituan lortu zuen gazte askok haiekin bat egitea. “Eusko Bazterra sortu eta urtebete eskasera, 250-300 bat gazte geunden bertan: Iruñean geunden baina Euskal Herri osoan ibiltzen ginen, eta gauzak egiteko

gogo betez geunden”. Pintaketekin hasi ziren lehenik: “Arrotxapean, Irati eta Plazaola bideak batzen ziren inguru horretan biltzen genuen brea eta horrekin egiten genituen pintaketak, ezabatze oso zailak zirelako”, dio. ‘Gora Euskadi askatuta’ eta antzeko mezuz betetzen zituzten paretak. Horrez gain, euskal kultura bultzatzeko bestelako ekimenak ere antolatzen hasi ziren: euskara klaseak, txistu eta akordeoi ikastaroak, euskal dantzak, Aberri Egunak...

Ekintza ugari bi urteko ibilbidean

Eusko Bazterraren bi urteko jardunean anekdota eta istorio ugari bizi izan zituen Elkanok, arrisku handikoak horietako zenbait. Mugatik pasatzen zuten propaganda ilegaletik hasi eta Sanfermin egunean Irurtzungo Bi Ahizpetik zintzilikatu zuten ikurrina erraldoira, hamaika izan ziren egindako ekintzak. Horietako bat, 1967ko Aberri Egunean Iruñean egindakoa: eguerdian, Gaztelu Plaza bete-betea zegoela, suziri berezi batzuk airera bota eta horiek erortzean paraxut moduko sistemarekin airean gelditu ziren poliki-poliki jaisten, ikurrinak zintzilik zituztela, jendetza harridura eraginez. 1968an ere taldearen aktibitatea oso sutua izan zen, etengabe egin zituzten ekintzak.

“ Urtebete eskasera 250 gazte batu ziren Eusko Bazterrara ”



Jose Luis Elkano ‘Kokolo’ ▲



▲ 250 gazte inguru batu ziren Eusko Bazterrara lehen urtean (Argazkia: Orreaga Fundazioa)

1968tik aurrera, gainera, ekintzetan pauso bat aurrera emateko erabakia hartu zuen taldeak: urte horretako maiatzean esaterako, Espainiako Txirrindularitza Itzulian, Zudairetik hurbil errepidea leherrarazi zuten eta etapa bertan behera uztera behartu. Horren ondoren, 69ko apirilean hainbat monumentu frankista leherrarazteko plana abiatu zuten. Ez zen dena nahi bezala aterako, dena den.



▲ Iruñeko San Jose plazan zuen egoitza Eusko Bazterrak (Argazkia: Orreaga Fundazioa)

Jokin Artajo eta Alberto Asurmendiren istripua Ziaurrizko hilerri inguruan

Monumentu frankistak leherrarazteko plan horretan, 1969ko apirilaren 6an Alberto Asurmendi eta Jokin Artajo gazteek bizia galdu zuten ekintzarako lehergailuak manipulatzeko ari zirela. Gure eskualdean gertatu zen leherketa, Ziaurrizko hilerri inguruan. Kokolo izan zen bi gazteak hilik topatu zituen lehen pertsona.

"1969ko aberri egunean izan zen: egun hartan ni gurasoen Ostizko taberna atarian nengoen eserita, eta bat-batean sekulako eztanda entzun zen. Autoa hartu eta eztandaren lekura joan nintzen segituan, Ziaurrizko hilerriara, Ostiztik kilometro eta erdi eskasera. Triskantza handi batekin egin nuen topo bertan: autoa txatarra bihurtua zegoen, oraindik kea botatzen zuen ni iritsi nintzenean, eta zatiak 50-60 metroko erradioan zeuden sakabanatuta. Ez nituen gazteak ezagutu, erabat

kiskaliak zeudelako, baina autoa bai: lehenagotik beste ekintza batzuetarako erabilia genuelako. Eta suposatu nuen nortzuk izan zitezkeen", kontatzen du Elkanok.

Bi gazteak bizirik zeuden ikustera hurbildu zitzairen baina inork ez erantzutean hilik zeudela pentsatu eta handik lehenbailehen alde egitea erabaki zuen Ostiztarrek. "Denbora zen atzetik geneuzkala, eta han topatu izan banindute eraman egingo ninduten", dio.

Jokin Artajo momentuan bertan hil zen eta Alberto Asurmendi handik ordu gutxira, Iruñeko klinika batean. 25 urte zituen lehenak, eta 23 bigarrenak. Momentu hartan bukatu zen Eusko Bazterraren aktibitatea. "Eusko Bazterrako kideak izan ziren biak, baina egoitza ixtean EGIkoak izatera pasatuak ziren", azaltzen du Elkanok.

laz izan zen bi gazteen heriotzatik 50. urteurrena, eta urtero

bezala, omenaldia egin zieten Iruñean, bi gazteak lurperatuta dauden hilerrian. Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzak.


▼ Ezkerrean Alberto Asurmendi eta eskuinean txistua jotzen Jokin Artajo



Konfinamendua arintzen doan honetan, eskertuko genuke Saltsa Purrustarako argazkiak berriro bidaltzen hastea. Terrazan, mendian, edo beste edonon egiten dituzuenak bidali pulunpe@gmail.com helbidera. Mila esker!







Isabel Saez Perez,

“Zineman aritzea zen nire ametsa, baina herri txiki batean bizi nahi nuela ere argi nuen”

Isabel Saez Perez zinemagileak askotan aldatu du bizitokia. Palacios de la Sierra Burgosko herri txiki batean jaioa, eta Burgos hirian bizi ondoren, Madrilen bizi izan zen luzez. Nafarroara duela bost urte etorri zen. Mugimendu sozialetan ibili da beti, eta haiei lotuta ere egon da bere lana. Taldean lan egitea, elkarlanean, atsegin du. Bizi ere komunitatean bizitzaren aldekoa da, eta momentuz, Erason aurkitu du bere lekua. Zauriak dokumentalaren zuzendarietako bat da, Maier Irigoien eta Iker Oizekin batera. Espero ez zuten arrakasta lortu du dokumentalak, eta Vimeo plataforman ikusgai izan ondoren, Filmin-en ikusi daiteke orain.

• IKUS-ENTZUNEZKOETAN LAN EGITEA ETA HERRI TXIKI BATEAN BIZITZEA, NOLATAN? MADRIL IZANEN DA ZURE LANBIDEAREN ERDIGUNEA...


Zineman aritzea zen nire ametsa, baina herri txiki batean bizi nahi nuela ere argi nuen. Azken urteetan leher eginda uzten ninduen hiriak. Urte luzez Madrilen ikasi eta lan egin nuen, eta orduko bizimodu hura bukatutzat eman nuen. Burgosko herri batean bizitzeko proiektua ez zen aurrera atera, eta kasualitatez komunitatean bizi nahi zuen jendea ezagutu nuen. Landa eremuan bizi eta landa eremuaz bizi nahi zutenak. Imotza etorritako jendea ezagutu nuen eta bizirik dagoen eskualdea iruditu zitzaidan. Oso gustura nago hemen, paisaia ederra da, eta herritarren arteko harremanak eta hemen garatu daitekeen bizimodua ere oso aberasgarria dela uste dut.

• ZAURIK DOKUMENTALAREN ZUZENDARIETAKO BAT ZARA, NOLA SORTU ZEN PROIEKTUA?

Maier prozesu terapeutikoetan aritzen da, eta buruko osasunarekin lotura duten



Isabel Saez Perez Erason ▲



“ Vimeo-n 20.000 bisita baino gehiago izan ditugu! Hori ez genuen espero inolaz ere ”

mugimendu sozialetan izan da. Iker eta bera elkarren lagunak dira aspalditik, eta beti hitz egiten zuten honekin lotutako zerbaitekin egin behar zela, ikus-entzunezko formatuan. Nirekin jarri ziren harremanetan, eta aurreneko minututik gai izugarri potoloa iruditu zitzaidan, eta horretan sakondu nahi nuen. Pozesu psikiatriko instituzionalizatu bat iragandako emakume “bolleroak” eta transak hitz egitea nahi genuen, lehenengo pertsona; haien ahotsak entzun zitezela. Aldi berean, haien egoerari buruzko hausnarketa kritiko bat egindakoak ziren, eta haien egoerari, prozesu instituzionalizatuaz haratago, alternatibak eta bestelako konponbideak bilatutakoak.

• DOKUMENTALAK IBILBIDE LUZEA EGIN DU, USTEKABEAN HARTU AL ZINTUZTEN HORREK?

Bai, espero genuena baino luzeagoa. Gainera, oso interesgarriak iruditzen zaizkigun guneetan zabaldu da. Ez gara soilik zinema-aretoetan izan; kolektibo feministetan, buruko osasuneko taldeetan,

kulturguneetan, herriguneetan ere bai. Hau da, publiko zabala izan dugu. Zauriak, zinema-proiektu bat baino gehiago, dibulgazio materiala da. Gehiegi hitz egin ez den gaia da, eta, horregatik hain zuzen ere, horrelako interesa sortuko zuenik ez genuen espero. Konfinamenduan sarean ikusgai jartzea erabaki genuen, itxialdia buruko osasunerako egoera zaila zela uste genuelako, hain zuzen ere. Gure ekarpena egiteko modua izan zen. Eta Vimeo-n 20.000 bisita baino gehiago izan ditugu! Hori ez genuen espero inolaz ere.

• ZAPAREN ZINEMA-ARETOAN ERE AURKEZTU ZENUTEN!

Imotzen kultura bultzatzeko grina eta herritarren arteko harremanak bultzatzeko gogoia dago. Halako batean Zapak zinema-areto bat etxean duela ikasi genuen. “Erason zinemagileak eta zinema-aretoa, bietatik, badugu” esan ohi dugu txantxetan.

• BOST URTE BAINO GEHIAGO DIRA KAMERA BAT ESKU ARTEAN DUZULA...

Nire ekoiztetxe Escaramujo-rekin lanean 2013an hasi nintzen, baina kamera bat esku artean, askoz denbora gehiago egin dut! Betidanik! Aita argazkilaria da, eta gure etxean beti izan dugu lotura irudiarekin.

• ORAIN, ARI AL ZARA LANEAN ZERBAITETAN?

Nire fikziozko lehenengo lana izango dena egiten ari naiz. Prostituzioari buruzko dokumental bat izan behar zuen hasieran, hainbat emakume elkarriketatut

nuen, baina ikusi zutenean proiektua aurrera zihoala, ez agertzea nahiago zutela esan zidaten. Orduan, aktore batzuekin haiei egindako elkarriketak berriz filmatzen ari gara. Eskerrak eman nahi dizkiot Muskizko kontzejuari, bertan grabatzen utzi baininduten. Pelikula labor bat eginen dugu lehenbizi, nahiz eta askoz gehiagorako eman dezakeen, **Chicas prepago** deitzen da, eta maiatzaren 20an crowdfunding-a jarri genuen martxan. <https://www.verkami.com/projects/26124-chicas-prepago-cortometraje> webgunean egin daitezke ekarpenak. Facebooken eta Instagramen ere ikusi daiteke trailerra.

• KONFINAMENDU ETA ALARMA EGOERAK, NOLA ERAGIN DIZU ZURI ETA ZURE LANARI?

Etorkizun iluna ikusten dut sektore guztietan. Zer gertatzen da zehazki kulturarekin? Murrizketak pairatzen ohi dituen lehenengo sektorea dela. Jatea eta halakoak oinarritzkoak dira; horrelako egoeretan kulturarekiko inbertsio publikoak murriztu egiten dira, eta baita kontsumoa ere, gutxiago joaten gara zinemara. Baina alde positiboa ere ikusi diot: uste dut jendea konturatu dela zenbat kultura eta ikus-entzunezko edukiak kontsumitzen dituen, itxialdian ikusi da kultura kontsumitzen dugula. Baina arriskurik ere bada, eduki horiek Netflix bezalako ekoiztetxe handiek bakarrik sortu ahal izatea; eta gu bezalako etxe txikiei, eduki sozialak egiten ditugunoi, eta baliabide gutxi ditugunoi, lana geroz eta zailago jartzearen arriskua. Baina aurrera egiteko borroka horretan jarraituko dugu.



Esan omen zion behin...(3)

Erran men'tzion..., esan ben'tzion...

BIXTA, BIXTA, IZUGARRIZKOA!

İñaki Perurena marka gogorrek egiten ari zen denborako kontua: 315 kilo, 316 kilo, 317 kilo... İñaki holakoa izaki, indarra eta teknika gaitzekoa.

Beti gora eta gora, bere hoberenean egoki eta.

Hala, egun batez, Saralegi zaharra, herri kiroletan ere ibilitakoa bera, beste batekin ostatuan hau eta hura, hura eta hau, ari omen ziren herri kiroletaz eta, jakina, harri goratze kontua atera hizpidera eta hala bota omen zion lagunak Saralegi zaharrari:

-Perurenaren markak hautsiko dituenik jaiotzekoa zegok oraindiketa jaio ere ez duk jaioko beharbada!

-Hiri hala iruditzen!? Ba, bazekiat ba nik nork hautsiko dituen edo horren marketara nor iritsiko den! Leitzan bertan, gainera!

-Zer ari haiz esaten, motel! Leitzan gainera? Ja, ja, ja!

-Zer ari naizen esaten?

Han omen zebilen bere seme

gazteena, Mieltxo, eta deitu omen zuen eta hala bota omen zuen Saralegik:

-Hau duk Perurenaren markak hautsiko dituen, hauxe!

Harriturik gizona, ixilik gelditu zen.

Eta luze gabe, mutiko hura harri jasotzen hasi zen eta baita bere adinean gora egin ahala, markak hausten ere. Eta hala izan, alajainkoa, txapeldun ikaragarria!

Saralegi zaharrak bazuen indarra ezeze bista. Bista zorrotza! Txapelduna honetan, Saralegi zaharra. Bai horixe!

Geroztik Saralegitarrak jolas franko jarri izan dute herri kiroletan.

Eta orain ere hor dator belaunaldi berria: Ruben Saralegi, Iker Vicente Saralegi...

Kiroletan handiak leitzarrak! Baina gaurkoan, Saralegi zaharraren bixtarekin geldituko nintzateke! Bai horixe!

Oharra: Hemen behintzat, jolasa edo yolasa, hitza da; eta jolastea, hitz egitea. Ez gazte jendeak ikastolan ikasi duena.

IGOAKO HERRIAREN BATAIOA

Jainkoa eta San Pedro munduan barna bazterrak ikusiz, jendea moldatu bidenabar.

Basaburuko ugalde hertzetik, Aizarozko hurbiletik, pasieran, goiti herritto bat ikusi, mendi kaskoan eta San Pedrok Jesukristori:

-Goitiko herri koxkor horretara ez al dugu joan behar?

Eta Jesukristok, zakurren ipurditan zegoen herriari begira jarri eta non bota dion:

-Hi goa!

Eta halaxe du herri honek bere izena, Igoa.

ANDRE MARIA ANDRESA. ANDRE MANATZAILEA?

Hala omen zen andrea. Andresa zeritzana. Etxalde handikoa. Eta neskame eta mutila izaten zituen. Agintzeko jaioa Andresa!

Katua egongelan aldrebeskeriaren bat egiten eta, hala esan omen zion butakatik neskameari:

-Joxepa, esaion katu horri, zapi!

Agindu behar gogorra izaten dute zenbaitzuk. Eta menekoa baldin badute zer esanik ez! Zerbait egiten dutelakoan, agindu! Beti agindu!

Eta jende hauek hala izaten dira, Imotzen esan den bezala: Agintzaile ona, egintzaile txarra.

Oharra: Ez dugu jarriko andre honen izen-deiturarik nahiz aspaldi xamar hila izan.



Igoako herria, kaxkoan. ▲



Napoleon Bonaparte XIX. mendeko kriminalik handiena.

JAINKOANIZENEGO BURU ARGIA

Txepeldurik, trepeldurik, beroturik, moxkor antza, mozkortuxe, erdi mozkortua, franko mozkorturik, mozkorturik, erabat mozkortua, total egina... ;edo horditua, kaka egina... ez dakigu nola zegoen, baina bizitzako txingia galdu gabea nola nahi dela ere. Bai, hala zebilen jainkoanizeneko hura, eskale hura, Suarbeko karriketan.

Hala kontatu zigun egun batez **Sandroneko** Joxe Mari Ilarregik:

-Hortxe, eskailera horretan, (Toralen etxetik bi maila besterik ez daude ba **Sandroneko** etxe atarira, malda errazteko jarriak) **jainkoanizenekoa** oztopatu eta tupustean bertan erori eta halaxe ateratu zitzaizkion:

Juarbe,

Su puta madre!!!

Esan duguna, bizitzaren txispa, adimenaren bizitasuna galdu gabe. Zakarra gure gizona, baina aldi berean ederra bere buruko zorroztasun bat-batekoa. Gainera suarbearren batek entzutea nahiko zuen eta han suertau Joxe Mari!

EZKONDU ERE EGIN BEHARKO DUGU BA! ETA GARAIZ BADA, HOBE!

Joxe Bernardo Otaño Lasa (1842-1912) Pedro Mari Otaño bertsolari handiaren osaba zen. Joxe Bernardo ere ez zen ba bertsolari makala, ez horixe!

Behin, igande bazkalondo batez, Joxe Bernardo bere alaba Placidarekin bertsotan ari omen zen etxeko sukaldean. Eta, Placidak, bertso batean ateratu omen zion ezkontzeko kontua; nahia edo, eta prestatzen joateko dotea, aipatu.

Eta Joxe Bernardok erantzun:

Ezkondu bear denala

hoi den baloria!

Hemezortzi urte den

hire edadia.

Pikara, gaizki hazi,

lotsarik gabia,

hik aberastuko naun

len banaiz pobria.

Eta Plazidak aitari ondoren:

Aita, zartu ta gero

garai hobia ezta,

neska gaztiak ere

badu bere kezka;

illea zuriturik,

nobiyorik ez-ta,

orduan alperrik da

soñuba ta pesta.

FRANTZIA HANDIA. EGINAK GORATU EDO BEHERATUKO ZAITUZTE

Hitlerrek Alemanian botera hartu zuenean eta bere nahierara gobernatzen hasi zenean, Frantzia txepelkeriatan ari omen zen, Hitlerri dena uztearen alde eta Britainia Handia konforme ez.

Frantziak, noizbait, halako batean, komunikatu bat ateratu omen zuen Hitlerren erregimena kondenatuz.

Eta Churchillrek, Britainia Handiko lehen ministroak, hala bota omen zuen:

-Horiek hitz handiak dira, baino ekintzek burrunba gehiago aterako zuten!

Zerbaitengatik zion Churchillrek "Frantzia Handiaz" hori. Frantzia, hori izan da joan den aspaldian: handiekin uzkur, ttikiekin anker. Frantziako Errepublikaren goiburua honako hau da: *askatasuna, berdintasuna, anaitasuna*. Hala ere, juxtu, kontrako bidean ibili izan da; eta orain berean ere betiko bidetik dabil FRANTZIA HANDIA!



Txurdan

Hiztegia

Hizpidea: conversacion

Jainkoanizenekoa: eskalea.

Nahierara: bere gustura (a su antojo)



Indarkeria matxistaren kontrako protokoloa ehuntzen

Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko protokoloa osatzen ari da duela zenbait hilabetetik hona Ultzamako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea. Amaia Paz Vallejo berdintasun teknikariak Esan Erran irratian azaldu zuenez, protokoloa osatze aldera lehen fasean daude orain: informazio bilketa eta diagnostiko fasean.

• ESKUALDEKO EMAKUMEEN PERTZEPZIOA

Maiatzaren hasieran mezu bidez eta sare sozialetatik zabaldu zuten eskualdeko emakumeei zuzendutako galdetegia. "Ultzama aldeko emakumeek inguru honetan indarkeriaren inguruan duten pertzepzioa biltzea da helburua. Eta ez soilik txosten ofizialetan eta memorietan jasotzen den indarkeriarena, hortik kanpo, bizitzako arlo guztietan jasan daitekeena ere bai", azaldu zuen berdintasun teknikariak. Azken batean, Ultzama aldean indarkeriak nola eragiten duen hobeki ulertzeko bide bat da.

Maiatzaren 10a baino lehen bete beharra zen galdetegia, modu erabat anonimo eta konfidentzalean. Hortik, eta indarkeria matxistaren alorrean lanean diharduten beste zenbait agenterekin egin dituzten elkarrizketetatik ateratako informazioarekin, protokoloa osatzen joatea da asmoa orain. "Hasiera batean lantaldeak sortzea zen gure asmoa, arlo honetan diharduten profesionalekin informazio bilketa egiteko. Baina egoera honetara egokitu behar izan dugu eta telefonoko elkarrizketa bidez ari gara profesionalekin hizketan: Osasun Zentroarekin, Gizarte Zerbitzuekin, berdintasun arloarekin, genero indarkeriari arreta integrala emateko lantaldeekin nahiz poliziarekin".

• KOORDINAZIOA HOBETZEA HELBURU

Emakumeen arretan edota emakumeen indarkeriaren arloan diharduten profesionalen eta oro har sistema osoaren koordinazioa hobetzeko beharretik sortu da protokoloa osatzeko ideia. Indarkeria matxistaren kasuetan askotan emakumea biktimizatzeko dagoen joeraren aurrean, horri buelta ematea da asmoa. "Askotan zerbitzu batetik bestera ibili behar izaten dute emakumeek, zenbaitetan baliabideak ez dira beraiegana iristen... Guzti hori hobetzeko da protokoloa, emakumeen eskubideak beteak egoteko", adierazi zuen Paz Vallejok.



Helburua ez da soilik txosten ofizialetako indarkeria kasuak jasotzea, bizitzako arlo guztietan jasan daitekeena bildu nahi dugu



▲ Urtarrilean Lizason eraso sexisten aurkako lan saioa egin zuten



Euskañolez ari zen muttikoa!

Lehen, gerra ondoren eta, Euskal Herriko herri anitzetan euskara zen lehen hizkuntza. Eta euskaraz mintzatzen ziren haurrak karrikan, gazteak halaber, eta lanean hasten zirenean ere zenbaitzuk bere lan lekuetan euskaraz egiten segitzen zuten. Lehen hizkuntza zuten euskara eremu anitzetan eta adin diferenteetan.

Eta orain? Ba, orain berriki gertatu zitzaidana kontatuko dizuet: gure herriko eliz atarian nengoan, itzalpean, ekaineko egun bero eta idor batean. Irakurtzen, bakardadean, egun guzian ere nekez pasatuko baita bertatik inor. Halako batean, non sumatzen dudun gizon baten ahotsa, Larraungo doinua antzeman nion, ustez behintzat euskaraz ari zen. Eta honi jarraiki beste bi haurren ahotsak, baina batez ere batena, txintxoa baino txintoagoa eta doinu erabat erdalduna. Okaztagarria!

Hurbildu ahala, ene baitan, euskaraz ari ote duk? Eta bai, bai, euskara gisako batean ari zen umeetako bat ardiak kaka

bezala; atertu gabe ari zen mutiko hura. Harrigarria, nolako erraztasuna zuen esaldiak bata bestearen segidan korapilatzen. Ez dut inor ikusi horrelako ziztuan mintzatzen. Baina, sinestezina, ez zuen esaldi bat ere euskara sintaxiaz taxutzen. Ezta bat bakarra ere. Esaldi guziak atzekoz aurrera. Zinez, ez dut horrelakorik ikusi.

Iritsi dira eliz atarira, adineko gizaki bat eta bi muttiko dira, 10-11 urtekoak gutxi gora-behera.

Elkar agurtu dugu.

-Bazaudela!

-Bai, bai, hemen gaude, eliza zaintzen! Zuek ere bazabiltzate ba!

Eta asko luzatu gabe elkarren ezagutzak egin eta ikasi ahal izan dut bai bera eta bai haurrak Larraungoak direla. Aitatxi bi bilobekin.

Eliza ikusteko gogoaz aldu, eta barnera sartu eta erakutsi diet; azalpen laburren bat eman ere bai.

Bukatutakoan, eliz atarian bertan, honela eman diot segida ihardukiari:

-Aizu, eta haur hau euskaraz... (haietako batez mintzo natzaio, ez baitut bestea ia entzun ere egin)

-Bai, euskaraz gehiago daki erdaraz baino.

-Zer ari zara esaten? Horrexengatik galdetzen dizut ba! Euskaraz hola-hola; erdaraz hobeki jakinen du!?

-Ez, ez, euskaraz ikasi zuten ttikitatik eta erdaraz gaizki. Hauek dena euskaraz!

-Bai, baina, erdaraz dakiena ongi jakinen du.

-Ez, ez, hauek dena euskaraz!

-Bai, baina, erdaraz dakiena ongi jakinen du.

-Ez, ez, euskaraz erdaraz baino hobeki!

-Baina euskarazko esaldi guziak aldrebes jartzen ditu eta!

-Bueno, hori bai, hala egiten du, bai.

(?)

Gaia horrela uztea erabaki nuen, ez nuen mindu nahi gizaki hura, gutxienez azaldu nion pentsatzen eta sentitzen nuen nahigabea. Ez, ez nion aipatu nahi, inola ere, nolako erdal azentua zuen haur hark. Aski! Jendeari erakustea ongi dago, zertxobait estutzea ere bai, baina ez zapaltzea eta gutxiago on eta zintzoa den bat. Errua ez da berea.

(Hurrengo orrialdean segitzen du)



Elizatari hau izan zen testigu: aitatxi sinetsirik euskaraz izugarri ongi zekiela ilobak. Honek, berriz, aintieuskaraz baizik ez zekien. Euskaraz tutik ere ez, zero.



Eta jakin dezazuen, haur horren gurasoak euskaldun peto-petoak dira, etxean berak esan bezala euskaraz ari direnak... eta hala ere zer ikusten dugu?

Haur horren hizkuntza zein da? Euskara hala gaztelera? Nik dudarik ez dut. Eta bere eskola lagunak? Etxean erdaraz ari diren haur horiek? Horiek anitzez gehiago baitira Larraunen gure protagonista ttikiaren tipokoak baino.

Arnasgune batean, eskolak euskaraz, familian euskaraz eta hala ere gaztelera **lehen hizkuntza** duten haurrak ari gara

sortzen. Gaztelera, ttiki-ttikitatik **lehen hizkuntza**. Koxkortzearekin bakarra izanen dute, lehena eta azkena!

Non da konponbidea? Orain bezala segitu behar al dugu herritar, guraso, eskola, euskal teknikari... alderdi politiko, udal. Itsu eta mutu? Baikortasunez gainezka?

Amildegian behera goaz, kaka bezala. Oraindik poliki xamar, laster ziztu bizian.



Txurdan

Hiztegia

Lehen hizkuntza: Bat izaten da lehena. Gure lehen hizkuntza euskara al da? Edo erdara da?

Halaber: asimismo, tambien.

Eremua: lekua, esparrua

Txintxoa: agudo ("notas altas" Musika)

Okaztagarria: nazkagarria

Taxutu: componer, plasmar

Ihardukia: hizketaldia

Arnasgune: Euskara oraindik indartsu dagoen lekua. Euskaldunak arnasa edo hatsa har dezakeen tokia.

Urtebetetzeak Urtebetetzeak

Maiatzaren 23an bete zituen 94 urte



Zorionak Mikaela!

Zoriondu zure laguna
Pulunpen!

pulunpe@gmail.com



Zorionak Iker!



Esan Erran

Irratiaren hastapenei begira

FMko 107.9an bere txoko propioa dauka Ultzama aldeak duela urte mordoxka batetik. Baina, ba al dakizue noiz, zergatik, eta nondik nora sortu zen Esan Erran irrati? Erdi kasualitatez 1997ko Egunkariaren ale bateko erreportaje batekin topo egin dugu: irrati xume eta txiki hau ilusio handiz martxan jartzen zihoazen momentukoa. Eta 1997tik 2020ra ekartzea pentsatu dugu! Atzera begira jartzeak kalterik egiten ez duelako...

1997ko apirilaren 18ko Egunkariko Nafarkarian agertu zen Ametza Kultur Elkarteko hiru kideri egindako elkarrizketatik ateratako erreportajea, "Irrati berria sortzeko bidean" tituluarekin. Txuri-beltzeko argazkian, garai hartan elkartean buru-belarri zebiltzan hiru kide ageri dira, gazte: Ricardo Igoa 'Axi', Begoña Okiñena eta Maria Puy Arano.

• **EUSKARA BATZORDEEN BULTZADATIK SORTUA**

Imotz, Basaburua eta Ultzamako Euskara Batzordeak hasi ziren euskarazko herri irrati berriaren ideari tiraka. "Basaburuan bereziki, eta Imotzen, euskara maila nahiko ona da, gehienek hitz egiten dute. Gaur egun, dena den, erdaldunak

dira entzuten dituzten irrati gehienak. Hori dela eta, euskarazko irratiak jendearen jakin-mina piztuko duela uste dugu", zioen elkarrizketa hartan Maria Puy Aranok. Irratiaren bidez eskualdeko herritarrek euskara gehiago erabiltzea zen hasierako helburu nagusia. Baina ez hori bakarra: eskualdeko bizilagunen topagune izatea eta haien kohesio soziala lortzea ere bazuten bultzatzaileek helburu.

• **GARAICO ZORTZI MILIOI PEZETA**

Irrati berria sortzeko bilera egin zuten hiru bailaretako ordezkariak 1996ko ekainean Lizason, eta handik atera zen Ametza Kultur Elkartea. Irrati proiektua eskualdeko udaletxeetan aurkeztu zuten orduan:

“**Eskualdean euskararen erabilera sustatzea eta herritarren topagune izatea zen irratiaren bultzatzaileen asmoa**”

"Finantzabideak aztertzen hasi ginen eta udaletxeek parte hartu behar zutela pentsatu genuen", zioen Aranok. Garai hartako Ultzamako udaletxea kenduta, gainontzeko guztiek eman zioten proiektuari babes eta laguntza, eta Cederna Garalur elkarteak ere eman zuen proiektua abiatzeko laguntza. "Hasieran beharko dugu diru gehien, alde batetik irrati muntatu, eta bestetik, urte osoko aurrekontua behar dugulako. Denetara, zortzi milioi pezeta inguru beharko dugu lehen urtean".

Irratia bultzatzeko finantzabideen bila, hainbat ekimen antolatu zituen elkarteak hastapenean: Balerdi Balerdi eta Drindots taldeekin gaupasa antolatu zuten, esaterako, Larraintzarren, 97ko apirilaren 19an. Azkenean, irrati martxan jartzeko beharrezko dirua lortu eta 1998ko udazkenean ekin zion irratiak bideari Fermintxo eta Txari esatariekin.



▲ 1997ko Egunkariako erreportajea. Argazkian Axi, Begoña Okiñena eta Maria Puy Arano



zozketa Errugbi

Julen Ancizu Marckert: “Errugbi gaupasa gure finantzazio iturri nagusia da”

Alarma egoeraren ondorioz, eta Covid-19aren hedapena saihesteko, bertan behera gelditu zen Larraintzarren izan behar zuen Errugbi Gaupasa. Baztan Rugby Taldeko finantzaketa iturri nagusia izaten da urtero, eta, horregatik, beste batzuk bilatu behar izan dituzte. Ekainaren 27rako zozketa mamitsua antolatu dute. 5 euroren truke, brtmenditarrak.eus webgunean erosi daitezke boletoak. Julen Ancizu Marckert Lizasoarrak, BRT Menditarrak-eko kideak eman dizkigu zehaztasun guztiak.

• Zuen finantzaketa iturri nagusia da errugbi gaupasa, zer egoeratan da taldea orain?

Esan duzun bezala errugbi gaupasa gure finantzazio iturri nagusia da. Urte honetan ezin izan dugu egin eta, horregatik, ezin izan dugu gure klubaren gastuei aurre egiteko dirua lortu.

• Horregatik, beste iturri batzuk bilatu behar izan dituzue: zozketa.

Zozketa honen sariak, gainera, zoragarriak dira: bederatzi eguneko kubarako bidaia bi pertsonarendako. Baina sasiak garbitzeko makina eta motozerra baten ordezkari aldatu dezake irabazleak. Boletoak erosteko taldeko edozeinekin kontaktuan jarri edo, bestela, boletoa digitala erosi daiteke brtmenditarrak.eus webgunean. Zozketa ekainaren 27an egingo da, BRT-ko elkartean. Irabazlea webgunean eta Facebook-en agertuko da eta zenbaki saridunak amezti.eus-en eta erran.eus-en.

• Zer moduz doa zozketa? Boleto asko saldu al dituzue?

Ongi doa, ia-ia paperezko boleto guztiak saldu ditugu, eta baita interneteko boletoak ere. Guzitioi boletoak erostera animatzen zaituztegu!

• Ikasturte amaiera arraroa izan da aurtengoa, liga bukatzeko aukera izan zenuten?

Denboraldi hau bukatutzat eman dugu. Pena handia izan da bukaera hau, hirugarren postuan geundelako eta bigarrenengo oso gertu. Aukera handiak genituen mailaz igotzeko, ligako lehenengo fasean lehen postua lortu baikeuden. Bestalde, taldearekin oso pozik gaude aurten pertsona berriak jokatzera animatu direlako. Errugbia probatzeko gogoak dituenari Baztango taldera etortzera animatzen dugu!

• Eta hurrengo ikasturtea nola ikusten duzue?

Oraindik ez dakigu zer gertatuko den. Taldea ateratzeko jende nahikoa badugu hurrengo denboraldirako. Dena den, errugbia kontaktu handiko kirola da eta partidu bat jokatzeko 40 pertsona behar dira. Horregatik, itzuliko den azkeneko kirola izanen dela uste dugu. Baina oraindik ez dakigu ezer.



Zozketaren berri emateko bideoa egin dute BRT Menditarrak

BRT ZOZKETA
MENDITARRAK RUGBY TALDEA

www.brtmenditarrak.eus

EROSTEKO

PARA COMPRAR

Laguntzaileak: **divertis**

2 pertsonendako bidaia

CUBA

Viaje para 2 personas

Eskermile Gracias

Participa y podrás ganar uno de estos dos premios. Tu eliges, viaje o máquinas.

Laguntzaileak: **BB BLOK BAT TALLERES**



Lurraren

“Baratze bat nahi dizüt egin...”

Xabier Letek idatzi eta kantatu zuen Izarren hautsa, gerora hainbat euskal abeslarik zein taldek bertsio ezberdinetan kantatu dutena. Abesti ezagun bezain sakon eta zirraragarri honek, tartean “Naturarekin bat izan eta harremanetan sartzea” aipatzen digu eta hori da hain zuzen hilabete honetarako nire proposamena.

Gizakia naturatik aldentzen ari da aspaldi, bide horri ekin genionetik elkarrengandik geroz eta urrunago gaude. Hain da handia sortutako arrakala, zein gizaki askori ahaztu baitzaie gu naturako beste espezie bat gehiago garela.

Ez gehiago, ezta gutxiago ere.

Lurrari egiten dizkiogun kalte guztiak bueltan datozkigu, modu batean edo bestean. Bada garaia, beraz, elkar adiskidetzeko, eskutik hartu eta bide berriak jorratzeko. Gizaki zein Amalurrari on egingo digun ibilbidea hasteko garaia da.

Eskuak eta oinak lurrean jartzeko garaia da, baratzearen garaia, alegia. Horregatik, euskal kantutegiari ere jarriki, “Baratze bat nahi dizüt egin...” entzun eta aitzurra hartuta goazen lurra jorratzera, elikagaiak ekoiztera, arima eta gorputza elikatzerara eta lurrarekin bat egitera!

Zuetako askok izanen duzue baratze bat honez gero, eutsi eta jarraitu! Besteak, ekin lanari! Zertarako? Kirola egiteko, osasuntsu jateko, naturarekin bat egin eta naturaz gozatzeko, naturaz eta naturarekin ikasteko, bertakoa balioetsi eta hobeto ezagutzeko, naturako ziklo eta erritmoekin bat egiteko, gauza txikiez gozatzeko, lurreko sekretuez jabetzeko, kutsatu eta kontsumitu gabe aisialdia egiteko,... Lurra laztandu, zaindu eta zauririk egiten ez badiozue, uzta jasoko duzue, zalantzarik gabe.

 **Lurra**





Normaltasun berria,

Mailegu zerbitzua abian da berriro

Pasa den maiatzaren 11tik liburutegiek berriro ireki dezakete hainbat fasetan. Hasieran liburuak maileguan uzteko, eta pixkanaka bere zerbitzu guztiak emateko (beti, normaltasun berriaren neurriak eta arauak betez). Hala ere, Nafarroan, Kultura eta Kirol Departamentutik esan dute lan egiten ari direla liburutegiak irekitzeko "langileen eta erabiltzaileen babes eta segurtasun araudiak ezartzen dituen neurri guztiekin". Ez dago, beraz, data zehatza berriz martxan jartzeko, baina Pulunpe hau irakurtzen duzuenerako liburuak maileguan ematea posible izango dela esan dezakegu.

Horretarako arau batzuk bete beharko dira. Lehen egun horietan, liburuak maileguan hartu eta itzuli ahal izango dira, aldeztu aurreko hitzordu bitartez: posta elektronikoz eskatu ahal izango da, hau da, **liburutegia@ultzama.es** helbidera idatziz edo **948306747** telefonora deituz. Telefonoz egiten baduzue honako ordutegian egin beharko duzue: astelehenetik ostiralera, 16:30-19:30 bitartean ekainean. Uztailean hasiko gara udako ordutegiarekin: 10:30-19:30 bitartean.



Onin eta altxoraren uhartea, Ibon Martín

Liburu bat maileguan hartzeko:

- Nahi den liburua adierazi. <https://ultzamakoliburutegia.blogspot.com> blogean eta liburutegiko sare sozialetan eskuragarri daude gomendio eta nobedadeen aukeraketa bat. Gainera, nahi dutenek, liburutegiko katalogo osoa ere eskatzen ahal dute kontsultarako (emailaz bidaliko zaio Excel dokumentu batean).

- Liburuak **astearte** eta **ostegunetan** jaso ahalko dira 16:30-19:30 **liburuzainarekin adostutako orduan**.

- Zentro Zibikoko atea itxita egonen da, eta adostutako ordu zehatzetan irekiko du liburuzainak. Berak atean jarritako kaxa batean utziko du, eta orduan hartzen ahal du irakurleak liburua kaxatik.

- Liburuak maileguan hartzeko epeak ohikoak dira: hiru astez eta gehienez hiru liburu hartzen ahal dira.

- Liburua astearteetan eta ostegunetan itzuli beharko da, 16:30-19:30 tartean, eta aldeztu aurretik abisatuta, ordua zehazteko. Liburua, sarreran egonen den kaxa batean utzi beharko da. "Itzulketak" idatzita izanen du kaxak.

- **Itzultzen diren liburuak berrogeialdian egongo dira hamabost egunez.** Honekin lotuta, eskatzen dizuegu etxean maileguan dauzkazuen liburuak ekartzea lehenbailehen besteok ere irakurketaz gozatzeko, bestela denbora luzez atzeratuko da mailegua.

Distantzia bermatzeko, 10minutuko tarte gutxienez ziurtatuko du liburuzainak liburua uzteko zehaztutako ordua eta hartzeko orduaren artean. **Emandako orduan agertu, puntuala izan zaitezen eskatzen dizugu.**



Gogorarazi nahi dugu, bestalde, liburutegiko blogean, sare sozialetan eta udalaren webgunean gomendioak eta baliabideak eskaintzen jarraitzen dugula astero, etxetik kultur baliabideez (liburuak, filmak, eta abar) nahieran gozaten jarraitzeko.

Hor ere ikusten ahal dituzue arauak, datak eta baldintzak aldatu badira (hau idazten dugun eguna maiatzaren 22a da).

Bestalde, mailegua errazteko katalogoaren hautaketa bat prestatu dugu. Gomendatutako 40 liburu eta komiki aurkituko dituzue bertan, liburutegiaren bologean. Baita erosi ditugun nobedade batzuk. Horiei buruz hitz egingo dugu datorren kolaborazioan, baina hemen aurreratzen dizkizuegu horietako batzuk: MATONES (Bingen Amadoz), LIBRO DE FAMILIA (Galder Reguera) MIÑÁN (Amets Arzallus), LA MADRE DE FRANKENSTEIN (Almudena Grandes), BUNKER (Tote King) EL VERANO QUE MI MADRE TUVO LOS OJOS VERDES (Tatiana Tibuleac) AMA (José Ignacio Carnero) INTRODUCCIÓN A TERESA DE JESÚS (Cristina Morales) MAUS (Art Spiegelman) AIREA EZ DA DEBALDE (Joseba Sarrionandia) ONIN ETA ALT XORRAREN UHARTEA (Ibon Martin) edo MORTINA (Barbara Cantini).

Pixkanaka lan-erritmoa berreskuratzen joatea espero dugu, eta ahal den neurrian erabiltzaile guztien eskura egotea.

Laster arte!

 **Patxi Irurzun**
Utzamako liburuzaina



Airea ez da debalde,
Joseba Sarrionandia ▲

Ibrahim Balda eta Amets
Arzallus, Miñanen egileak ▼



2020ko apirilean

2020ko apirilean gure alderdian izan ziren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak:

Jaiotzak:

ANUE Olague

Ane Iraizotz Egozkue, apirilaren 10ean sortu zen, Jon eta Aitziberren alaba.

ULTZAMA Orkin

Mia Ostitz Alves, apirilaren 27an sortu zen, Ion eta Raquelen alaba, Migelenean.

“ Zorionak gurasoei ”

Ezkontzak

Apirilean, guk dakigula, ezkontzarik ez dugu izan.

“ Gure oroimenean izanen zarete ”

Heriotzak:

ATETZ Aroztegi

Jose Ignacio Huarte Cleofe, apirilaren 21ean hil zen, 74 urtetan. **Gurutzeneko** nagusia

BASABURUA Aizarotz

Dominica Goñi Villanueva, apirilaren 29an hil zen, 91 urtetan. **Joanen etxeko** etxekoandrea.

IMOTZ Etxaleku

Jose Miguel Beraza Otxandorena, apirilaren 23an hil zen, 83 urtetan. **Etxeberriko** semea.



▲ Julen, Mia altzoan duela



▲ Julian Zilbeti



▲ Teofilo Agustino



▲ Teofilo Agustino

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



TOKIKOM



HEDABIDEEGIN
ERE BAI

